

balaitze

2005eko APRILIA,
132. ZENB. DOHAINIK

Santelmoak 2005

HERRIA
SUTAN

EMAKUMEEN MUNDU MARTXA MAITZEAN GEUREAN

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Itziar Garate

Izaskun Urbieta

Maitane Agirre

Lure Alzibar

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Belen Golmaio, Abelin Linazisoro,

Joanito Dorronsoro, Haize

Galarraga, Xabier Aranguren,

Karmelo Arroiabe, Gorka Ormazuri,

Xabier Aizpurua, Ibon Aizpurua,

Izaga Garzia, Beñat Fernandez de

Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Jon

Maia, Eguzki Agirrezabalaga, Natur

Taldea, Ander Hormazuri, Aitor

Manterola, Imanol Garate,

Joseba Esnal.

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

943 86 15 45 tel.

Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
puntocom	7
ze berri? emakume taldea zumaian	8
erreportaia indamendiko gurutzea	10
elkarrizketa joseba ossa	12
kirolak gazteak sasoi betean	14
orain hamar urte	16
sukaldaritza	17
argazkitan santelmoak 2005	18
gure zumai zarra joxe manuel manterola	24
kultura	28
arte zine forum literatura	28
agenda	34



kirola sasoiiko gazteak

Xisteran eta arraunean
herriko gazteak maila
handia erakusten

Argitalpen honen edizioko laguntzaileak:



Zumaiaiko Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Leoloren pelikula ikusi det bart

Klask! Ixten zaizkit niri ere begiak ametsetan hasterako. Automatiko-ki, halako naturaltasunez, konturatu ere ez bainaiz egiten. Horrela ikasi det. Txikitan beldur nintzanean mantapean salbu sentitzen nintzen gisan, beldurtzen ninduen ikusi gabe, magia bidez edo, desagertu egiten zelakoan. Begiek ez baitakite gezurrik esaten, estali egin behar. Edo itxi.

Salbuespen egoera bat sortu nahi banu gisan, aislatu, neu bakarrik, inoren dependentziarik gabe. Ideala. Eta orduan ez da ezintasunik, zertan eske...ka ibilirik. Baina...bainak baratzean! Makina bat aldziz entzun degu, aitzakiak norberak ezarritako trabak direnaren aldarri. Akordatzen? Ez?

Ba, itxi begiak. Klask. Ikusten? Hor dago baratzea. Aipatutako baina berde-berdeak, eta kolore biziko kalabazekin. Eta tomateak.

Zoriak hala nahita, Siziliako tomate gorri eder batek utzi zuen haurdun Leoloren ama. Eta ez dakizue zenbat sufritzen zuen ume gizajoak gainontzekoek ulertzen ez zutelako. Desberdin izatea arazo baillitzan. Berak, ordea, amets egiteak salbatu zuela erotasunetik zioen. Izan ere, ez al da ba posible Sizilian tomate gorri ederrak haztea? Begiak ireki zituen arte.

Nik ere ireki egin ditut. Eta behien zintzari hotsak Vielhako zelai zabalak deskubritu dizkit. Hemen etzanda, zeru urdinak muga-

tzen dit horizontea. Zuri dira oraindik tontorren soinak, erreken egarria asetzeko lain.

Laino bat dator. Eguzkiak lotsagabe begiratzen nauen bitartean euri ttantta batek aukeratu nau. Bigarrena kolkoan. Ahaztutua belar bustiaren usaina, asfaltoaren mesedetan. Hara! Erromako zubia.

Udaberriak berekin dakartza koloreak. Esmatu da. Ametsetik?

Santelmoak datozkit gogora. Marinel izango naiz datorren astean, urdinez jantzitako itsasoan. Zubi Txikiak hartuko du Erromakoren tokia, eta danbor hotsek estaliko zintzarrien soina. Txosnen zelaian zilipurdika, erreken egarria, zerbeza usaia asfaltoaren mesedetan...

Ai, ama! Erotu egin ote naiz ni ere, Leolo?

PD.: urdindutako marea jaitsi da jada. Ta bajamarrean lokatza irten zait bistara. Klask! Eskerrak, oraindik itxi ditzaket. Salbu naiz.



Eneko Dorronsoro

dani



ekin
TELEKOMUNIKAZIOAK

Bilboko Kalea 18 bidea, 48100 Zamudio. Tlf: 945 14 0007. ekin@telefonos.com www.ekin.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

Partenariak **DIGITAL +** **CANAL +**

Herri anormala

Herri anormal batean bizi gara. Lasai, ez naiz Zumaiaz ari-ta, Euskal Herriaz baino. Beraz, alperrikako panikorik ez, please. Herri anormal honetan, sarri askotan botilari eta Wojtylari gehiago erreparatzen zaie eskubide urraketeki baino, hainbeste urtetan jasotako egurraren ondoren, normala Klarol, atzera bueltarik gabeko koma egoera anesthesiatu batean egotea.

Baina kitto!! Iritsi da sueroa, herri oxigenoa, antibiotiko gorria. Diotenez kapitalismoak bere burua ito aurretik, berri-tzeko sistemak eta trikimailuak asmatzen omen ditu, sistema-ren iraupena bermatzeko beti ere. Kapitalismoak ezkertiarak burgestu dituen baskauntri gripatura iritsi da erizaina herri-zain lanak egitera. Izar gorriarekin, komunista dela dio!! Irteerarik ez zeukala ematen zuen labirinto juridiko-politiko batean galduta, aukera guztiak agortuta zeudela zirudien, baina ez, EHAK loratu da udaberrian eta guztioi irriparra zintzilika-tu digu. Guztiok ere, zera pentsatzen: ederra sartu zieagu orain ere!! Ba bai, ta izorra daitezela denak. Bizi garen gizar-tean bizita, komunismoa aipatzeak berak ere farrea sortarazten du. Umore pixkat politikaren zirkoan. Herri hau normaltzen den egunean, ez dakit zerekin entretenituko garen.

Hauteskunde kanpaina zeharo interesgarria suertatu zaigu. Lotsagarri ere bai. ETBk sasi eztabaidak antolatatu ditu

KiliKolo lehiaketaren estetikarekin, ea nor koko-loago. Klean astero kartel andana berria agertu zaigu: Patxi soziata, hobe Maria, Marrazo hiru pau-sutan, Ibarretxe ea elkarre-kin egingo dugun galde-tuz! Eta azken orduan komunistak, euskal lurral-deetakoak. Herria lurrik gabe, etengabe desterratua baita. Herriko tabernaren batean komunisten bandera haizatu dutela esan dit batek, tabernatik irten eta urliak sandiari "kamarada" deitu diola, hedatzen ari da komunismoa. Hoberena, ordea, azkenerako utzi dut. Santutxu, apirilak 11, rock gogorra ozen entzuten da. Kanpainari azken puzkerrak ateratzen Eskorbutoen musika jarrita: "Ya no quedan mas cojones, Eskorbuto a las elecciones, para vivir alegre y contento, Eskorbuto al parlamento!". To Komunistak! Eredu guztiak apurtuz. Madrilen 80ak revival gisa atera dituzte Mecanorekin. Guk Eskorbuto. Nortasunik behintzat ez zaigu falta herri anormal honetan.



Xabier Aizpurua



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN ERREGENERAZIO ETA SALMENTA


Tel./Fax: 943 143 102 - Juan Belnorne, 2 bajo - 20750 ZUMAIA



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santxo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

SANTA ANAKO LANGILEAK GREBA MUGAGABEAN

Harbil Osa Udabe, Edurne Epelde Pagola; Urola Kostako Emakumeen Mundu Martxarako Plataformaren izenean.

Santa Ana egoitzako langileak denbora luzea daramate lan hitzarmen propioa aldarrikatuz. Ostalaritzako konbenioa dute, eta bertan beraien funtzioak eta mailak ez dira jasotzen, zereginak zehaztu gabe daude eta ondorioz askotan bertako langileek beren lan orduen zati handi bat garbiketa lanak egiten igarotzen dute eta aitona-amonak izan ditzaketen beste maila bateko beharrak (emozionalak, hitz egitekoa, komunikatzeak...) asetzeko denborarik gabe geratzen dira.

Horrez gain, soldatak lan merkatuko apalenetakoak dira eta berriro ere, adinako pertsonen asistentzia eta zainketa lan garrantzitsua ez da egoki baloratua, ez sozialki, ezta ekonomikoki ere. Gainera, ez da kasualitate hutsa lanpostu hau betetzen duten gehienak emakumezkoak izatea eta berriz ere emakumeek lan baldintza prekarioak jasan behar izatea.

Santa Anako langileek burutzen dutena ez da lan bokazionala, langile hauek, milaka langile bezala, lan merkatuan buru-belarri sarturik daude zarauztarrentzat beharrezkoa den zerbitzu publiko bat kubritzen. Beraien langile izaeratik lan hitzarmen duin bat negoziatzeko eskubidea dute, batetik beraien lan baldintzez kezkatuta daudelako eta bestetik Santa Anan dauden aitona-amonen egoeraz kontziente izanik eskaintzen duten zerbitzua hobetzeko apustu garbia egin dutelako.

Santa Ana egoitza batzorde batek kudeatzen du eta orain Santa Anan lanean dabiltzan emakumeak dituzte

kontratatuak. Batzorde hau hainbat kidek osatzen dute eta beraien artean da Etxaniz Alkatea, lehendakari karguan. Langileak saiatu dira batzordearekin eta lehendakariarekin (Maiterekin) hitz egiten eta negoziatzen, baina ezinezkoa izan da eta hori dela eta langileek greba mugagabea hasi dute.

Urola Kostako Emakumeen Mundu Martxarako plataformatik gure kezka azaldu nahi dugu egoitzako emakumeen egoerarekiko, baita Alkateak orain arte erakutsi duen jarrerarekiko ere. Orain arte historian zehar, zaharren zaintza eta ardura, emakumeek hartu izan dute beregain eta etxe ezberdinetan gaur egun ere emakume mordoak burutzen ditu hirugarren adinekoen zaintza lanak musu-truk. Azken hamarkadetan emakumea lan merkatura sartzen hasi denetik beharrezkoak dira Santa Anak eskaintzen dituen bezalako zerbitzuak, azken batean emakumezkoak beren bizitza beste modu batera antolatzeko aukera eskaintzen baitie. Ez da kasualitatea, ordea, lanpostu horietan ere emakumeak egotea eta hain justu lan horiek gutxi baloratuak izatea.

Iruditzen zaigu Udalaren kompetentzia dela hirugarren adinekoen asistentzia eta herriko emakumeon egoera aldatzeko lanean baduela zeresanik Administrazio Publikoak. Orain dela gutxi onartu berri da Zarautzen "Gizon eta emakumeen aukera berdintasunaren aldeko plana". Planaren helburua da emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatzea eta hori posible izateko bitartekoak

martxan jartzea. Baina plan hau oso interesgarria izan daitekeen arren, Santa Anako langileen afera bezalakoek dudan jartzen dute plan horren atzean egon daitezkeen interesen ziurtasuna. Iruditzen zaigu Zarauzko Udalaren helburua gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna bada, hirugarren adinekoen asistentzian diru gehiago inbertitu beharko luketela eta Udaleko aurrekontuak begiratu besterik ez dago benetako interesa baloratzeko. Gainera, Santa Anako langileek alkatearen aldetik jarrera irekiagoa eta negoziatzaileagoa merezi dutela uste dugu.

Urola Kostako Emakumeen Mundu Martxarako plataforman, emakume taldeek, sindikatuak, alderdi politikoak, gazte mugimenduek... parte hartzen dugu eta emakumeen eskubideen aldeko borrokan beharrezko ikusten genuen Santa Anako langileei gure atxikimendu eta babes osoa ematea eta beren aldarrikapenekin bat egitea. Zuen lana beharrezkoa da emakumeen askatasunerako bidean eta harro gaude emakumeak lan baldintza duinak borrokatzeko antolatu direlako eta aitona-amonentzako benetako zerbitzua eskaintzeko ahalegin indartsua egiten ari zaretelako.

Espero dugu berandu baino lehen lan hitzarmen duina lortuko dutela eta gizon eta emakumeen parekidetasunerako bidean urrats berriak egingo ditugula.

Herritarren babesa eta laguntza duzue, animo eta aurrera!!

ILEAPAINDEGIA

IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS
TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak


E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

Eman botoa!

Hori da hori boto zaparrada izan duguna! Ia 300 boto jaso ditugu txosnen inguruan egindako galderarekin. Polemika ere sortu zen txosnak moilan kokatzearen alde eta inon ez jartzearen aldekoen artean. Biek ere bere hautagaitzak irabazli tea nahi zuten. Badirudi pixkanaka gure inkesta hau indarra hartzen hasi dela. Apirilaren 17an izango diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeek halako interesa sortaraziko al dute?

INKESTA



IRITZI BATZUK

lari

2005/03/21 - 12:17 PM

Txinto-txinto eman det nere botoa, baina beste zerbaiz komentatu nahiko nuke. Atentzia eman di, bai txosnen kasuan, baita barrakenerian ere, zenbat jendeak eman dun "inon ez" botoa, eta jakin nahiko nuke zer arrazoi jakaten hometarako. Alegiyo, ulertzia badakak ez gustatza pista homela ospatza, txosmetan eo barakatan, bafa ifion ere ez ituzketala jarriko erate... Nik kutsodadia, behintzat, badakak, eta azaltzek bazeneukate...

Wali

2005/03/21 - 12:50 PM

Ni pixkat haratago jaango nintzateke. Hau idazteko unean, "Inon ez" erantzun dutenak gehiago dira. Beraz, agian erabaida beste bat da: Txosnen gunea festatuko gune desfasatua da? Beste garai batetara? Edo besteren bat da amaioia (politika, giroa,...)

exhangle

2005/04/07 - 01:28 PM

La ltrav! baak botuai aupa cantelimo ta aupa txosnak!!

al2

2005/03/21 - 05:19 PM

Nei txosnetako giroa esko gustatzen zitzaidan. Inoiz ez dezu siebal entzungo eta sutyik ez badao behintzat lasai ta gustoa eon laiketza tabernetako agobiyutak kango.

Baina gero eta gutyiyo juten naiz txosneta. Etzait bate gustatzen "borroka", "ETA", "Txakurak" eta betiko marketina ikutia zurto bat esaten deten bitartian. Esker salbatzaileen eremus dia txosnak.

Baizik denak ezin dila zaku berdian sartu. AEN-koan, Pablo Ibarrekian adibidez gustos ostean naiz baina beste batzuk auto benben oihartzuna ekartzen didate gogora.

Beraz, nik Amaiaiko plazan botzatuko det baina aurtan ze txosna dabon jakin nahiko nuke aurretik, Inonk ba al dakit?

mao

2005/03/30 - 10:50 PM

Inkestako galdera zera da: non jarriko zenituzke txosnak? Baina badirudi alizk gaita desbideratu nahi duela. Ez zait batere gaitiki inditzen amaia plazan jarzea baina, zer gertatzen da? Txosna batzuk ez dutela merez: Amaia plazan jarzea eta beste batzuk bai? Denak eskubide berdinak edukiko dituzte, ezta? Espero det Zumaian inoiz ez gertatzea, edibidez, sibeon baragotekin gertatzen ari dena aken urtetan.

Euskal Herriko jaietan eta baita Zumaian ere bati izan dira txosnak gune borozi bat eta aparteko giroa sortu izan dutenak bereziki gasteentzat.

Agian, eskulin salbatzaileak edo ezker deskafeinatuak ere txosnak jarri behariko lituzkete eta homela giroa gehiago alartuko litzateke. Ah! Iazko cantelmuetan nik ikusi nituen autok txosna ondoan apartatuta baina ez ziren auto berbak, zuntza edateko ortopeak baizik barra ondo ondoan baitzuden.

dekorazioa

ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAlA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAVITZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

- Jardinen diseinu ... mantenimendua
- Nekazaritza zerbitzuak
- Kiral zelaien mantenimendua
- Txostenak ... aholkularitza teknikoak,
- Balazoiak



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

Alberdi

Gizonetzkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

zumaian emakume taldea sortu da

Hasi berri den Emakumeen Mundu Martxa dela eta, Zumaia Emakume taldeak hainbat ekin-tza egingo ditu

IURE ALZIBAR eta MAITANE AGIRRE

Joan den martxoaren 8an Brasilen hasi zen Emakumeen Mundu Martxa maia-tzean iritsiko da Euskal Herrira. Mundu Martxa honek jatorri etniko, kultural, erlijioso, politiko, klase, adin eta orientazio sexual desberdinak dituzten emakumeak biltzen ditu. Sorrera 2000. urtean izan zuen plataforma honek eta bere helburuak, besteak beste, hauek dira: munduko pobrezia amaitzea, aberastasuna banatzea eta emakumeen aurkako indarkeria bukatzea. Urte horretan gertaturiko grebaren ondorioz hasi ziren garatzen, hain zuzen

ere, martxa eta karta mundiala. Karta horrek munduko pobrezia eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egiten du. Martxa pasatzen den herrialde guztietan aldarrikapenaren zati berri bat gehituko zaio kartari. Mundu Martxan mundu osoko 5.000 talde dabilta lanean.

Horri guztiari herrietan jarraipena emateko, Zumaian ere emakume talde bat sortu da. Talde horrek Emakumeen Mundu Martxako Plataforma Nazionalarekin bat egin du eta handik jaso zuten honelako talde bat sortzeko deia. Zumaia Emakume Taldea hainbat alorretako emakumez osaturik dago, hala nola,

Malen Etxea (emakume atzerritarren elkarte), sindikatueta emakumeak... Hala ere, edozein elkarte edo emakumek ere har dezake parte.

Jendearen artean ezagutzera emateko asmoz ekitaldi batzuk egiteko asmoa du Emakume Taldeak, baina oraindik ere zehazteko daude, eta "ekitaldiak aurrera eraman ahal izateko instituzioei laguntza eskatzeko asmoa dugu". Dagoeneko zenbait ekintza gauzatu dituzte: zinema, antzerkia, hitzaldiak, martxoaren 8an paperak banatzea eta manifestaldia, Santelmotan banatutako pegatinak... "Material gutxi dugu, baina gure helburua gure

Nikol Enea

TABERNA

Amaia plaza

ad

**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85


AIZPURUA

LIBRERÍA
R U D E N D A

Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569


J A T E T X E A
L U B A K I

Basel Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



Aldarrikapenak

Hona hemen Emakumeen Mundu Martxak kritikatzan dituen hainbat puntu:

- Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna hainbat gauza lortzeko orduan. Hala nola, aberastasuna, produktio bideak, ondasunak, hezkuntza, lana, osasuna, etxebizitza, janariak, teknologia, soldata, segurtasuna, eskubideen errespetua, babes soziala, informazioa, duintasunaren onarpena, bikotekidea aukeratzeko eskubidea...
- Kultura batzuetan umeek eta emaku-

meeek norberaren borondatearen aurka ezkondu behar dute. Horietako askok ez dute aske izateko, nortasun agiriak edukitzeko, umeak izateko edo ez izateko, iritzia emateko, ondasunak jasotzeko edota bizitza politiko eta publikoan parte hartzeko eskubiderik.

- Emakumeek indarkeria jasaten dute. Beste zenbait kulturatan inolako esku-biderik ez dutenez, genitalak kentzeaz gain, emakume izateagatik soilik erre egiten dituzte. Gainera, gutxitan izaten dute jasandako eraso horien ondorioak konpontzeko aukera.

• ...

buruak ezagutzera ematea da". "Ezagutzera ematearekin batera, eztabaida gune bat zabaltzea nahi dugu emakumeok gizartean zein toki betetzen dugun jakiteko. Ildo horretatik jarraituz, gizezkoiei pentsarazi nahi diegu beren sexukoek nolako portaera duten emakumeekiko". Horretaz gain, emakumeek gizartean betetzen dituzten rolen inguruan pentsatzea nahi dute, zergatik diren beti guztien zaintzaile, zergatik dituzten emakumeek lan prekarioagoak... "Azken finean, emakumeok beti izango ditugu arazo gehiago gizarte honetan". "Emakumeok gizartean bizi dugun egoeraren inguruko pentsamendua piztu nahi dugu".

Beraz, lanean jarraitzeko asmoa dute eta Emakumeen Munduko Martxa Euskal Herrira iristen denean bertako kartari buruzko informazio gehiago jasoko dugu.

ALTZARIAK OSTOLAZA AROEZTEGIA



Mota guztietako altzariak eta aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325



Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869

H o r t z k l i n i k a

Mozès Hiriart eta SOULIER
Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontzia
- * Inplantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278



ALBAITARITZA
KLINIKA

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunetan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30
Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Indamendiko gurutzeak 50 urte betetzen ditu apirilaren 24an. Urrezko Ezteiak ospatzen dituela eta, une aproposa iruditu zaigu gurutzea eraikitzearen bultzatzaileetako batekin, Andoni Ormazurirekin, hitz egiteko.

Indamendiko gurutzearen urrezko ezteiak

JUAN LUIS ROMATET

Garai hartako gutunen fotokopiekin eta argazkiekin azaldu da Andoni. Gutunak Aizarnazabalgo alkateari eta Gobernadore Zibilarari bidalitakoak dira. Idazkera dotorea, gaztelaniaz, oso era barrokoan, orain apenas erabiltzen dena. Argazkian, berriz, gazte talde bat ikus daiteke aldamiotan igota gurutzea atzean dutela. Bertan jende ezagun asko sumatzen da: Joakin Urkidi, Luis Azkue eta Jacob Manterola, besteak beste.

Oargui-Beti Gazte (Organización Atlético Recreativo Guipuzcoa) elkarteko kide ziren gehienak. Oargui elizaren baitan sortutako talde bat zen eta kirol eta kultura arlotan egiten zuen lan, gehienbat mendiarekin lotuta zeuden gaiekin. Gipuzkoako herri askotan zegoen zabaldua elkarte hau. Herri bakoitzak erakundearenari izen propio bat eransten zion eta zumaiarrek Beti Gazte aukeratu zuten abizen bezala.

Ilusioa eta lana egiteko gogoaz ez zitzaizela falta. 1954an Oristoko iturria eraiki zuten eta inaugurazioa ospatzeko mendi buelta bat antolatu zuten. Buelta hau, Zumaiako Bira, sasoiatsu heldu da guregana 50 urteak beteak dituen arren. Iturriaren ondoren beste proiektu bati ekin zioten Oarguikoek: Euskal Herriko beste mendi askotan bezala, Zumaiako mendian, Indamendin ere gurutze bat eraikitzea.

Indamendiko magaletan hiru udalerrik egiten dute topo: Getariak, Aiak eta Aizarnazabalek. Tontorra, ordea, Aizarnazabali zegokion. Jose Etxabe zen urte haietan Aizarnazabaleko alkatea. Berekin hitz egin ondoren baimena gogotsu eman zien zumaiar gazteei. Ia ehun urte beteta, oraindik bizirik da eta oraindik gogoan du garai hura.

Aurrez, ordea, lurren jabeekin ere hitz eginda zeuden. "Ibarrenekua" baserriko Jesus Olaizola zen Indamendi goialdearen jabea. Honek ere ez zuen inongo arazorik jarri. Baimen guztiak eskutan izanda, bigarren pausoa emateko ordua heldu zen.

Hemen ere, Oristoko iturria eraiki zuen Luis Azkue izan zen proiektuaren egilea eta igeltsero lanetan aritu zen. Aldamia, berriz, Jose Udabe "Bitartek"-k altxatu zituen. Hiru tamaina desberdinetako hormigoizko hodiak erabiliko ziren. Baruan burdinazko barilak sartuko ziren indarra emateko eta gero porlanez beteko ziren. Aurretik, zementuzko base bat jarriko zen egitura guztiari eusteko. Kokalekua ere aurrez aukeratu behar zen. Andonik gogoratzen duenez, posteak lurrean sartu eta Zumaiatik, Paoletik eta herriko beste zenbait tokitatik kataloxen bitartez aritzen ziren begiratzen kokalekua egokia zen erabakitzeke.

Materiala mendi puntara igotzea konpondu beharreko beste arazo bat zen eta horretarako ezinbestekoa zen baserriaren laguntza. Lanetik atera eta trenbideari jarraituz Indamendi inguruko baserriarekin hitz egitera joaten zirela du gogoan Andonik. Hasieran kexu ziren baserriarrak eta laguntzeko asmo handirik ez zuten erakusten. Egoera ikusita "trikimailuak" erabili behar izan zituzten. Nahikoa izan zen bati ondoko baserrikoak lagundu behar zuela esatea, nahiz eta hala ez izan, bera ere lagundu beharrean aurkitzeko. Horrela hiru baserriaren laguntza lortu zuten. Bakoitzak bere idi parearekin altxa zuten material guztia Indamendira.

Gurutzea egiteko ordua heldu zen. Aste Santuaren baitan egin zuten gurutzea. Dozena bat lagun inguru aritu ziren lanean. Gurutzea nahiko azkar altxa zutela dio





Andonik, nahiz eta egun batean lanak utzi behar izan zuten "Jaunaren guardiara" joateko.

Apirilaren 24a aukeratu zen gurutzeta bedeinkatzeko. Aldi berean, probintzia mailako Finalisten Eguna ospatzen zen. Gipuzkoako mendizaleei sariak banatzen zitzaien ekitaldi hartan. Orain bezala, igotako mendi kopuruagatik sari bana ematen zitzaien mendizaleei. Donostian egindako bilera batean ospakizuna Indamendin egitea erabaki zen. Hainbat herritatik etorritako jendetza handia igo zen mendira. Elizkizuna Luis Etxeberria apaizak eta Oarguiko kontziliar-ia zen Ramon Gaztelumendik eman zuten. Festa bat egin zen jarraian Oikian. Dantzariak, pilota partidak eta bazkaria izan zen. Baserritarrei, lurjabeiei eta Aizarnazabaleko alkateari gonbidapen berezia luzatu zitzaien. Oikiako Errementeri jatetxean izan zuten bazkaria, eta

Andonik gogoratzen duenez, baserritarrek pozik, oso pozik amaitu zuten.

Hainbat anekdota eta pasadizo gogoratzen ditu Andonik, baina ez du amaitu nahi lana egin zuen lagun taldeari esker beroak eman gabe. Jada hilda dauden Joakin Urkidi, Inaxio Alvarez eta Joxe Udabe gogoratzen ditu bereziki, horien laguntza berezia ezin baitu ahaztu.

50 urteren ondoren tente-tente jarraitzen du Indamendiko gurutzeak. Gutxienez beste hainbat urtetan jarrai dezala.

Indamendi eguna

Maiatzen 1ean ospatuko da Indamendi eguna. Goizean goiz abiatuko dira mendizaleak Elkanorako bidean. Urtero bezala, mendi kopuru jakin bat igo dutenei sariak banatuko zaizkie bertan, "Finalisten Eguna" bezala ezagutzen den ekitaldian. 15 gazte dira aurtengo finalistak: Telmo Aldalur, Alex Odriozola, Jon Fernandez, Amaia Lopetegi, Unax Mendizabal, Laura Peña, Jokin Gorostola, Amaia Oliden, Jone Tena, Argi Yeregi, Xebe Yeregi, Iñigo Manterola, Mikel Caporossi, Pello Orbea eta Nerea Martinez. Inda Mendi Mendi Bazkuneko kideek pozik dira aurtengo saridunen kopuruarekin, ohikoa 10-12 izatea baita. Sariez gain, finalistek eta tontorra zapaltzen dutenek salda beroa hartzeko aukera izango dute.



Karmengo Ama, 14
E-20749 **Airrao** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
french
euskara
englantí
español
catalonian
suomi basc
català finnois
français angles
catalán française
castellano finnish
ingles baski catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.



B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



"Itzultzaileak gauza berdina bere modura esaten jakin behar du"



B

ITSASO IBARRA

idaiatuz eta tokian tokiko bizimoduan murgilduz ikasi ditu Joseba Ossak katalana, frantsesa eta finlandiera. Egun, sei hizkuntzatan mintzatzeko gai da eta hizkuntza du lantresna. Berak sorturiko Bakun enpresan 12 urte daramatza lanean. Datoren bi urteotan enpresako lana EIZIEko lehendakaritza karguarekin uztartuko du.

Itzultzailearen lehendabiziko tresna hizkuntza da. Nola ikasi dituzu dakizkizunak?

Eskolan ingelesa ikasi nuen zazpi urtez, eta besteak tokian bertan ikasi ditut. Lehendabizi Kataluniara joan nintzen. Aurrez gramatika pixka bat ikasia nuen, eta bertan bi hilabetez, belarria ireki eta bihotza zabalduz ikasi nuen. Ondoren, Frantzia eta Belgika, entzunaz eta beti jarrera irekia izanez lau hilabetetan frantsesa ikastea lortu nuen.

Eta finlandiera?

Finlandiera ikasten lan handiagoa izan nuen, hizkuntza zaila eta konplexua baita. Lagunei nire aurrean finlandieraz hitz egiteko eskatu nien. Hasieran zaila izaten da, ez duzu ezer ulertzen eta hizkuntza bat bestearekin nahasten duzu. Baina ulertzen hasi eta beste hizkuntza batean

komunikatzeko gai zarela ikusten duzunean, sekulako poza sentitzen da.

Zein da itzultzaileen lana?

Gure lana testu idatziak itzultzea izaten da. Gehienbat gaztelanetik euskarara egiten ditugu itzulpenak, baina, frantsesetik, ingelesetik, katalanetik eta finlandieratik ere egiten ditugu. Testuei dagokienez, hezkuntza arlokoak itzultzen ditugu, eskolako materiala, historiako liburuak... Baina, tresna elektrikoaren manualak ere itzuli izan ditugu. Duela gutxi hozkailu baten manuala itzuli dugu.

Testu horien artean izango dira administrazioakoak, ezta?

Gaztelaniaz testu konplexuak dira, menpeko esaldi luzeak erabiltzen dira, eta horien erabilerak testua ilundu egiten du. Euskarara itzultzerakoan euskara argiaren bidetik jotzen dugu; euskara argia, garbia, esaldi laburrak eta sinpletasuna ematen diegu euskarazko testuei.

Zein ezaugarri izan behar ditu itzultzaile on bateko?

Berezko dohainak izan behar dira. Musikarako bezala, belarri ona izatea ezinbestekoa da. Bestetik, komunikatzeko gaitasuna eta jatorrizko testuarekiko distantzia hartzen

jakin behar da. Kopia asko egiten dira, testuak hitzez hitz itzuliaz. Testua irakurri, eta gauza bera bere modura esaten jakin behar du itzultzaileak. Gai askotako testuak itzuli behar direnez, gai askoren inguruan ezagutza izatea garrantzitsua da. Ez da gai batean espezializatu behar, denetarik jakin behar da. Erabiliko diren bi hizkuntzak ere ondo jakin behar dira.

Euskarara testu asko itzultzen dira. Eta euskaratik besteetara?

Gaur egun, gehiago idazten da euskaraz. Baina, erakunde euskaldunek testuak gaztelaniaz sortu eta produzitzen jarraitzen dute. Horiek euskaratu egiten dira. Euskaratik besteetara ez da asko itzultzen, gaztelania da nagusi testu gehienetan. Aurrerapenak eman dira, baina, oraindik hutsuneak daude. Euskara oraindik normalizatu gabe dagoelako gertatzen da hau.

EIZIEko lehendakaria zara. Zein da bertan duzun lana?

Orokorrean, orain arteko proiektuei jarraipena ematea da nire lana. Bestetik pertsonalki badituz bi helburu: Finlandiarekiko harremanak estutzea, izan ere, eredugarriak dira itzultzailea lanetan; eta kultur elkarrekin harremanak sendotu nahiko nituzke.

Hainbat testu itzuli dituzu. Zein da gustura itzuliko zenukeena?

Amets utopiko bezala, Finlandiako *Kalevala* olerki epikoa itzuliko nuke. Finlandia eta Euskal Herriaren arteko harremana sustatzeko kultur elkarte bat sortu genuen, eta elkarteko erronka ere bada lan hori itzultzea. Agian, hemendik hamar urte barru itzuliko dugu.

Zer esango zenioke itzultzaile izateko bidean daudenei?

Ikasitakoa praktikan jartzeko eta burua ondo hornitzeko. Bestetik, eskarmentu handia duen baten alboan lan eginenez asko ikasten da.


“Testua irakurri, eta gauza bera bere modura esaten jakin behar du itzultzaileak”



Era guztietako instalazioak etxebizitzan, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409



Emilio Perez
Elektrigavio, telebista eta instalazio
elektrikoan salmenta eta konposketak

ADI

BASADI 28
20750 ZUMAILA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@euskalnet.net

SASOIKO GAZTEAK

Indarrean. Tiraka. Indartsu. Denbora galdu gabe. Hala ikusi ohi ditugu gazteak. Hala dela erakusten digute gazteek. Hori ikusteko aukera eman digute, behintzat, Zumaian. Horren adibide ditugu arraunean, bai neskak, baita infantil eta kadeteak ere. Horren adibide ditugu, halaber, zesta puntako jokalariai ere.

IZASKUN URBIETA eta ITZIAR GARATE


Joan den apirilaren 3an jokatu zen DV Liga. Arraunzaleen hitzordua Pasai Donibanen izan zen. Aur-reikusita zegoena bete zen. Eta Aita Mari Arraun Elkarteko neskak garaile atera ziren, bigarren urtez jarraian. Orio 8 segundora eta San Pedro 11ra sailkatu ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren. Seigarren eta azken estropada honetan ere, aurreko guztietan bezala, garaipena lortu dute. Hauek jardun zuten lanean batelean: Leire Antia, Irati Manzisidor, Maddi Gallastegi, Ainhoa Etxabe eta Ane Lopetegi.

Azken jardunaldiaren amaieran, sailkapenean lehenengo zumaiaarak, 42 punturekin, Orioko taldeak baino 7 gehiagorekin. Baina nesken lanak ez dira hemen amaitu. Apirilaren 9an eta 10ean Pasai San Pedron Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten; garaipenik ez,

baina bigarren geratzea lortu zuten. Portugaleten jokatu den Euskadiko txapelketan errebantarako aukera izango dute.

Baina neskak ez dira arraunean saiatzen diren bakarrak. Mutilak ere hor dabilta lehen sailkatuen artean. Kadete mailan, Aita Mari Arraun Taldeak bigarren postua lortu du Gipuzkoako batelen ligan. Orioko A taldea izan da garaile maila honetan, eta zumaiaarak 4 puntu gutxiagorekin gelditu dira. 5 aldiz bigarren gelditu arren, garaipena lortu zuten Orion bertan. Arraunlari gazteak hauek ditugu: Odei Arrizabalaga, Ibon Basterretxea, Bingen Esturo, Markel Mendizabal eta Iñaki Aristi.

Azkenik, jubenilen lana. Izan ere, sailkapenean bosgarren postua lortu zuten DV Ligan. Maila honetako arraunlariak hauek ditugu: Egoitz



Aitor Gorostola eta Iñaki Urbieta

Lopetegi, Jokin Gijarro, Josu Osa, Garikoitz Lopetegi eta Unai Osa.

Xisteran ere ondo

Baina arrauna ez da Zumaian egiten den kirol bakarra, ezta garaipenak dakartzan kirol bakarra ere. Horren adibide ditugu Zumaiaiko Zesta Punta eskolako bi jokalaria: Aitor Gorostola azpeitiarra eta Iñaki Urbieta zumaia-



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1



SIWA
Belardenda

Besadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajerak
- Dietak
- Estetizista
- Sokoruma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



Arkupe

Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



Argazkia: FOTO MERTXE

ra. Biak ere 1989. urtean jaiok dira eta martxoaren 19an Euskal Herriko Ligako txapelketan garaile izan ziren. Hau izan da orain artean jaso duten saririk garrantzitsuena.

Markina-1 taldeari bi aldiz irabazi ondoren finala Markina-2 taldearen aurka jokatu zuten. Biak gustura daude egindako lanarekin, eta emaitzarekin, noski. "Jokatzeo modukoa zen eta partida ona irten zitzaigun", azaldu digu Gorostolak. "Oso urduri zeuden besteak", esan digu Urbietak.

Baina hau ez da bikote gazteak izan duen final bakarra. Martxoaren

29an Eskolarteko finala izan zen jokoan Cabanillasen. Hainbat eskolak hartu zuten parte: Bartzelona, Gasteiz, Tolosa, Donostia, Noain, Cabanillas eta Zumaiako zesta eskolek. Finalera, esan bezala, Zumaiako eta Tolosako bikoteak heldu ziren. Irabazten saiatu arren, azken emaitza 30-26 izan zen Tolosaren alde. Hala ere, Zumaiarak ez ziren esku hutsik bueltatu: Gorostolak bere postuan jokalarionenaren saria jaso zuen.

"Ahaztu eta aurrera jarraitu behar da. Ez dago besterik. Hori joan da eta orain beste txapelketa batean

pentsetzen hasi beharra dago". Gorostolak esan bezala: "Hauetatik ere ikasten da". Beste final bati buruz galdetzean biek irribarre egiten dute eta argi azaltzen digute pentsetzen dutena: "Lehenengo iritsi egin behar da".

Beraien esan bezala, hainbat txapelketatan dabilta orain: Berriatuako Txapelketan Urbietak jokatu hasi da, eta Gorostolak Santelmatoko finala jokatu berri du, atzelari lanetan Peio izan duela. Irabazterik ez zuten izan, ordea, Susino eta Blazquez I.aren aurkako partidaren galdu egin baitzuten, 30-23.

AITA MARI
KAFETEGIA

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaira

garabidun kamioia baskulagaria
garabia: 15m-16m


GARRAIOAK
Asensio Artetxe Iturbe

Tel.: 943 557 189 / 655 706 557
Izurtari, 5 2A (Zumain) - Aitzpilgotza, 16 F (Mendri)

gofi
haur jantziak

Amaia plaza z/g Tel. 943 860959

Santelmoak berriz? Ez, faborez!



Kinkireloetan hainbat urtetan pepitak, kakahueteak eta gozokiak saldu dizkigun Driss elkarrizketatu zuten zenbaki honetarako. Arrazakeriaz eta erlijio kontuez hitz egiten zuen 1972an Euskal Herrira etorri zen marokoar honek. Arrazakeria ez zuela ulertzen zioen Drissek: "Ez luke arrazismorik egon behar, eta tristea da, baina hori horrela da, eta horrela izango da. Ez da erraza hori konpontzea, pertsonarekin jaiotzen delako". Islamari buruz ere hitz egiten zuen: "Integristak ez dira musulmanak. Islama jarraitzen duenak ezin du hil, ezin du gezurrik esan, ezin du lapurtu, ezta bestearen emaztearekin lo egin ere. Musulmanak jende guztiaren anaia eta lagun izan behar du, eta ez etsai".

Ikastetxe baten lehen pausoen berri ematen zen apirileko zenbakian, Zumaia Herri Eskolarena, hain zuzen ere. Zumea ikastolak, Julene Azpeitiak eta Institutuak bat egin zuten eskola berri batean. Horrela, Zumaian irakaskuntza arloan aspaldidanik zegoen hutsunea betetzen zuela esaten zen. Helburua 0 urteko haurrekin hasete zela ere gaineratzen zen. Ia 10 urte zain egon behar izan dugu helburua lortzeko.

Kros herrikoa zen hizpide kirolen atalean. Ziur gaude gehien erreparatutako orrialdeak izango zirela hauek; izan ere, herriko korrikalariak egindako denborak irakur zitezkeen. "Ze postu egin du Anttonek? Lortu al du 45 minututik jaiste?" Halako galderak barra-barra egingo zirela ziur gaude. A! Kamel Ziani eta Usoa Sorazu izan ziren irabazleak.

The Pack musika taldea zen kultur orrietan protagonista. Oscar Cabeza, Jon Manzisidor, Igor Etxabe eta Imanol Manterolak osatutako taldeak garai hartan modan zegoen rock independenteari jarraitzen zioten, eta hori beraien kantetan oso argi geratzen zen. Bertako bi partaide Karidadeko Bentan daude orain. Nola aldatzen diren gauzak.

Santelmoak heltzeko zain uzten dugu 1995eko Zumaia. Gurean, behintzat, pasa dira. Batek baino gehiagok sekulako ajea izango du oraindik. Hurrengo hilabetea arte.

Aurtengoan pasa berri baditugu ere, Santelmoak heldu zain ziren Baleikeko aldizkariaren 11. zenbakia kaleratu zutenean. Prozesioaren zuri-beltzeko argazki bat ikus zitezkeen azalean. Barruan berriz, jaien egitaraua.

Aldizkaria zabaldu eta Zigor Etxabek gazte mugimenduari buruz idatzitako iritzi artikulu batekin egiten dugu topo. Bertan, Gazte Batzordeari buruz hitz egiten zuen. Hasiera bateko giro bizia eta proiektuak gogorarazi ondoren (festa alternatiboak, aldizkari eta irratia, mendi irteerak, etab.) nahiko era pesimistan amaitzen zuen: "Festetarako biltzen gara justu-justu eta hori, egin beharra dagoelako. Esan daiteke GB (Gazte Batzordea) ez dela existitzen gaur egun". 10 urte ondoren, gazte mugimendua erabat desagertu dela dirudi eta Gazte Batzordea oroitzen bat besterik ez da. Lastima.

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona

burdindegia

Mendara marinela, 1 Tel. 943 861117
Juan Belmonte, 15 943 143346
Faxa. 943 861330

English School **Harvest**

Ingeleseko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Bakailao orriak antxoaren gainean

O SAGAIK,
2 laguntzat:

300 gramo bakailao bizkar,
gatza kenduta.
2 baratxuri ale.
Patata handi bat.
Piper berde bat.
Tipula erdia.
2 piper txorizero.
6 antxo fresko.

Beñat Fernandez
de Arroyabe
Sukaldaria



Nola prestatu:

Ohiko marmitakoa egin, baina atunaren ordeaz erabili antxoak.
Puregailutik pasatu eta iragazi.

Bakailao bizkarretatik atera orriak eta frijitu su txikian, olio
pixka batekin eta baratxuri aleekin.

Jarri marmitako krema plateraren erdian; gainean, patata
egosiak (bi edo hiru zerra); horien gainean, bakailao orriak;
azkenik, bota gainetik perrexil txikitua.

On egin.

Oharra: nahi izanez gero, jarri gari zainzuri egosien mutur
batzuk, itxura edertzeko.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak


Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE. z/g
TEL: 943 885389



santelmoak 2005



Pasa dira Santelmoak. Zaila egiten da bi asteburu hauen balantzea hitz gutxitan egitea. Poza, barrea, alkohola, ajeak, fedea, tripafestak eta jendetza dira, besteak beste (edo bertzeak bertze, bisitari izan dugun Estitxu Fernandezen ohoretan) burura etortzen diren hitzak.

Festetan izandako giro aparta goraiatu beharko genuke. Jende ugari ibili da herrian, baina aurrekotan baino itodura gutxiago izan da. Hala ere, benetan ikusgarria zen Erribera kaleak arratsalde parean izaten zuen itxura: Algorri tabernatik Inpernuperainoko tarte guztiak betetzen zituen urdin koloreak.

Ez da, ordea, dena positiboa izan. Eguraldi txarraren ondorioz Koma taldearen kontzertua bertan behera geratu zen. Gau horretako haizeak txosnetan txikizioak ere eragin zituen. Urteroko bandera desagertzea ere izan da aurtengoan: urte honetan Aita Mari elkartean zegoen ikurrina eraman dute.

Baina pentsa dezagun gauza onetan. Irudiek hitzek baino indar gehiago dutela eta, alboan dituzue jaietan atera ditugun zenbait argazki. A, gero eta gutxiago falta da 2006ko Santelmotarako!




SANTELMOAK 2005



Prozesioa, tanborrada eta olarruzopa lehiaketa batetik, parranda, gaupasa eta 'aurpegi arraroak' bestetik. Denetarik aurki daiteke Santelmoetan.



SANTELMOAK 2005



SANTELMOAK 2005



SANTELMOAK 2005

Bertso saio bixia lehen ostiralean

Jendetza inguratu zen apirilaren lehen Aita Mari zinemara, 400 lagun inguru. Bertsolari oso onak etorri ziren eta saio oso politak entzun ahal izan ziren tartean, Amets Arzallus eta Andoni Egañak egin zutena, esaterako. Sarreran bertso paper lehiaketako liburuxkak banatu ziren eta Baleikeko bazkideek ere laster jasoko dute etxean ale bana.

Berriz ere Unai Gijarro txapeldun

Ehun lagun inguru elkartu ziren Anade elkartean eta giro ederrean jokatu zen Zumaiaiko VII. bertsolari txapelketa, kanpoan eguraldi kaxkarra izan zen arren. Afari bikaina amaitu eta gero hasi zen kanporaketa saioa eta akats handirik gabeko saioak egin zituzten denek, maila oso politekoak. Puntuazioan ez zen alde handirik izan eta horren erakusgarri da iaz bigarren fasera sailkatutako bi kide (Markel Peñalba eta Maialen Velarde) kanpoan geratu izana. Felix Aizpurua, Maddi Gallastegi, Unai Gijarro eta Josu Manzidorrek egin zuten aurrera eta zortziko txikian oso bertso bixiak eta politak eskaini zituzten. Kartzelako lanetan ere dotore aritu ziren denak eta erregularrenak irabazi zuen sari nagusia, txapela. Unai Gijarro izan genuen garaile, beraz, eta bigarren postuan Maddi Gallastegi geratu zen, txapelketan lehen aldiz parte hartu zuen gaztea. Iaz bezala entzuleek bertsolari gustukoena aukeratu ahal izan zuten eta Josu Manzidorrek lortu zuen sari hori, ale ederrak kantatu zituelako. Sari banaketaren hasieran Imanol Lazkanori omenalditxo bat egin zitzaion, Zumaian eta oro har egin duen lana eskertzeko eta oroigarri dotorea jaso zuen ordainetan, Ander Hormazurik egindako marrazkia Manu Garatek egurrera eramana. Bi orduko saioa txapeldunaren agurrarekin amaitu zen eta Zumaiaiko Bertso Eskolari eta han aritzen diren guztiei eskaini zien txapela Unai. Ea datozen urteetan ere hain saio ederrez gozaten jarraitzen dugun!

Txupinazoaren osagarri

Dagoeneko ohitura bihurtu da San Telmoko ermitatik jaitsi eta Itxas-Gainen ondoko plazatxoan saio koxkor bat egitea. Bertso Eskolakoei ondo etorriko zitzaien, gainera, hurrengo ostiralean jokatu zen txapelketarako motorrak berotzen hasteko.



"Bonbardaketak izaten zianean guk kalera ertentzen ginien jendeari laguntzeko"

ABELIN LINAZISORO

Ertzainak izan aurretik non egon zineten Bilbon?

Benito eta ni zapatero gitxibiztian. Han zanbuxoneko Axentxio, Abeliño eta Agustinekin ibili gitxuan. Jefa Agustín huan. Hauen anaixa Angel ere ibiltzen huan, hau txulito samarra huan, biájante. Bilbora ailegatu ginanean nora jo ez ginien, lanik ez gitxikan eta hantxe bilatu ginien lana. Gero, Euzkadiko Gobernuak deituta, ba, ofizina batera jun gitxuan salbokondukto bila Gernikara gudari juteko. Benito eta bixok Bergarako beste mutil batekin. Bidian abare batek eta gizon batek: Nora zoazte? Eta guk: Salbokondukto bila filetara juteko. Gu hirurok flakuak eta luziak gitxuan. Abariak guri beitu eta beitu eiten zian, gurena etorri eta, enrolatu eta mendira juteko kanpotik jende asko zetorrela, baina kaliak ordenik gabe geatuko ziala, gerra garaixan edozer pasatzen dala eta ertzain gehixo behar zala. Baina konfiantzazko jendia behar zutela. Ea zein partidotakuak giñan. Guk, PNV-koak. Eta hark: Horixe behar degu, ba! Gutxienez 1,80-ko luzeko gizonak. Kaleak-eta zaintzen ari gea. Eta zoazte honelako lekura.



Las Arenas-en ongi etorriak izan gitxuan.

Gerra garaian, orduan, zuek Las Arenas-en egon al zineten?

Lehenbizi Arenasetan. Handik mendira jutun gitxuan istruzixua ikastera. Gero taldetan Bilbo zaintzera. Kaliak, kanpoaldia, mendialdia... Gerra estutzen zihoan bezela, kale danak, minis-

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

Malaur

ert
informatika

tresna digi
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC
COMPUTER

terixuak... Dan dana. Egun batian hankian min hartu nian eta sukaldean jarri niñuen. Medikuen jun nitxuan eta honek: Zaina ebakita dezu eta horrei kontu egin behar diozu. Ezin zera asko ibili. Sukaldera lanera. Han bazeoan tipo bat, euskalduna, intendentzixa eramaten zuna. Gure kuartelien 80 bat ertzain izango gitxuan eta danontzako ogixa panaero batek ekartzen zian. Ogixa, ordea, bat etorri ez zala eta bestea jun zala, beti sobratu eiten huan. Egun batian etorri da komandantia ogi bila. Bi ogi bakarrik. *Manterola, y las sobras?* Eta nik: *Yo no sé nada.* Eguzero 30 bat ogi sobratu behar zuela esan zian hark. Intendentzixan zeon honek eramaten zian beretzat. Hura harrapatu zutenian ogixaren kargu ni eiteko esan zian komandantiak. Azkeneko ogixak ba al dakik zeinei eman nixkon? Athletic Bilbaoko jokalariei. Ameriketa jun zianian. San Pedruak ittuana. Ebakuazixua. Sobratutako ogixa nik gorde eiten nian. Etorri dek Gorostiza egun batian eta: *¿Tienes pan?* Eta nik: *No sé.* Ertzainak behar bazuen ere reserba gordetzen nian baezpaere. Hogeita hamar ogi nitxizkan. *Danos aunque sea un poco, para empujar, hark.* Nik behar zutena eman

eta haixek: *¡Nos has salvado!* Orduantxe hartu behar zien abioia Ameriketa juteko.

Zu denboraldi bat, orduan, intendentzian egon zinen. Bilbon bonbardaketak izan zirenean, non zinen? Bonbardaketak izaten zianeak guk kalera ertentzen



“Keakin eta hautsakin ez huan ondo ikusten eta arriskua zeon lekuetatik jendia beste aldera eramaten-eta ibiltzen gitxuan.”

ginien jendeari laguntzeko. Keakin eta hautsakin ez huan ondo ikusten eta arriskua zeon lekuetatik jendia beste aldera eramaten-eta ibiltzen gitxuan.

Behin, ume asko hil zuen bonbardaketa bat izan zenean, CNT-koak haserre, preso faxistak kartzelan bertan hiltzera joan zireneko hartan, zu han tokatu al zinen?

Bai. Gu gitxuan jun giñanak. Auz-eta hauek bildurtuta bilatu giñuzenak. *Han estado aquí, esan zian.* Bonba haundixak bota zizkien Bilbon eta jendia kabreatu ein huan. Orduan CNT-koak: *¡A quemar a todos los que están en las cárceles!*, esan zien. Gu preso zumaiarrak zeuden Larrinagara jun gitxuan. Larrinagan lehendik zibeztitan ertzainak eta haixei laguntzera jun gitxuan. CNT-koak oso haserre: *¡¿Qué hacen estos guardando a estos fascistas?! ¡Están matando niños en la calle!* Eta guk: *¡Estos no son los que matan!* Eta haixek: *No, pero estos les dan las señas! Hacen espionaje para decir donde está la gente! Y donde están los gudarís!* Eta guk esaten gitxuan kartzela barruan dagonak ez dula ihesten. Amarratuta dagonak nahiko dula bereakin. *Matar a estos es como matar un conejo en la jaula, guk.* Si intentan escapar, vale. Pero aquí den-



**TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694**

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

tro nol, guk. Eta kanpora bialdu giñizkien. Han, Bilbo bertan gure etxea erre ein zien eta beste etxe batera jun gitxuan. Arreba, Benito eta sei edo zazpi bagitxuan itxia hartuta. CNT-koak etorri ittuan eta, kanpora bialdu, hi! Geure etxetik kalera bialdu!

Zergatik?

Frentetik etorri ziala eta beaixek behar zutela itxia. Eskopetaz eta pistolaz etorri ittuan. Hiru edo lau egun egon ittuan gure itxian. Etxe dana puskatu, guk Ondarrutik-eta ekartzen giñun jatekoa kendu... Dana txikitu zien. Bueno, deneko jendia zeoan CNT-n, baina batzuek matoiak. Pistoloi haundixakin beldur eerra sartzen zien. Bilbon gerratik ihesitako jende asko zeoan eta auskalo nunguak zian haixek.

Zumaian, Molaren tropak sartzear zeudela, herritik Bilbora zuzenean joan al zineten?

Ez. Zumaitik Lekeitiora jun gitxuan lehenbizi. Auguston-eta aitta familixakin eta gu. Ni orduan haserre nitxuan

arrebakin. Etxe aldean batzuetan izaten ittuk, ba, kontuak. Ezkondu berrixa nittuan eta hasereren bat nitxikan arrebakin. Ez nian hitz egiten. Bueno, hitz egin juxtuan kalia, baina beste ezer ez. Moilara jun nitxuan, herritik erten nahi nian. Txaletian nitxuan eta txaletian andria, honen ahizpa, anaixa eta ama zibeztian. Eta gure aitta itsasoan. Gizona itsasoan, eta nik: Oain zer ein behar det? Moila aldera jun eta, zer berri da hamen? Jendia baziak-eta. Esteban eta Auguston-eta aitta han zibeztian. Nere andria iloba zien hauek. Zer?, nik. Gu bagoaz, haixek. Nora?, nik.

–Oain behinpehin Bizkai aldera, noabaitea ihesi. Bixar zetozik hauek. Gaur gabian edo bixar goizian sartuko ittuk, Donostixan ja sartu ittuk-eta.

–Noiz jun behar duzue?

–Goizeko hirurak baino lehen. Plemaa orduan dek eta alde ein behar diagu. Oain Bizkai aldera, gero ikusiko diagu nora. Handik Ameriketa-edo.

Jo! Hura bai zala! Ni neure kabuz pentsatzen: Auskalo nora jun behar deken gero, Joxe Manuel!

Batelean joan al zineten?

Ez. Motorrean. Estanis Arroiaberen motorrean. Augusto eta Estanis intimoak ittuan eta honek antxoetan-eta ibiltzeko motorra lagatzen zioan. Estanisek bere juergetako behar zunian, motorra beretzat. Ni haixekin hitz egiten eta: Jo! Bi arreba bazeuzkat, ba. Bixak solterak. Eta Benito ere... Dio! Arrebakin ez nian hitz egiten, ez nitxuan etxera juten... Eta haixek lagata neu bakarrik jutea ere... Dana laga eta... Haserre natxiok, baina... Jo! Kontzientzixak jotzen zian. Hantxe, eon eta eon moilan. Begitik malkoa ertentzen zian. Andriena jun eta esan nitxuan: Honela eta honela, eta arrebarena nijoa. Ondo eingo dezu -andriak- lehen ere nahiko badakau, eta haserreakin ez dauka gu ezer. Bi arrebak boltsak eginda komedorearen erdi-erdixan negarrez zibeztian. Zer dezue?, nik. Eta haixek: Hamen gatxibek, motel. Ez zekiagu zer egin. Erropa danak preparatuta eta ez zekiagu nora jo. Estazixora jo edo nora jo. Inork ez

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...
Marina
Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



ziguk ezer esaten-eta. Nahi al dezue nirekin etorri?, nik. Eta haixek: Nora? Honela eta honela, motorrean. Goazen!!, haixek. Hura poza hartu zutena! Benito eta danak hartu, motorrian sartu eta Lekeitiora.

Jende pila joango zineten, ba, motorrean, ezta?

Bai. Pila. Motorra larri-larri, honela-honela jun huan. Eta motor haundixa huan, e? Eskerrak itsaso ona zeon. Baina, Lekeitiora ailegatu eta ez ziguen laga desenbarkatzen. Txurrerua ere gurekin huan andregaixakin. Goizeko hiru t´erditan-edo ailegatu eta hangoak: Geldi! Geldi!

Han moilan sare tartian laga giñuzten. Eon hortxe! Geldi! Goizeko zortzirak aldian gizon bat, oso kuriooa, urdinez jantzita, 35-40 urtekua, zeintzu ginan galdetu ziun. Arreba Maria, moilara erren eta honela eta honela leku bila ari ginala. Orduan gizon honek itsasoko pilotua zala esan zioan. Hura mobilizatu ein zutela, baina ama zaharra zeukala itxian eta konfiantzazko lagun bat behar zula hura zaitzeko. Mariak ahizpa ere ba zeukala. Eta hark, bueno, hura ere juteko. Biaje txiki bat zeukala eiteko eta segituan eingo zula buelta.

Zuek, orduan, Lekeitioan geratu zineten. Denok?

Bai. Danok. Egun batzuetan. Hantxe jatekorik gabe patrikakua gastatu arte.



*“Haixek bakarrik lagata
neu bakarrik jutea
ere... Haserre natxiok,
baina... Jo! Kontzientzixak jotzen zian.
Hantxe, eon eta eon
moilan. Begitik malkoa
ertentzen zian.”*

Diruak ahitzen ari zian bezela beste norabaitera jun behar eta nire andriak parienteak bazituzen Bilbon, Llanonekuak, hara jo ginien. Jakin ginien non bizi zian eta arrebarena jun gitxuan. Hara! Oaintxe etorri dek kapitaina eta ni ere banatxiak zuekin. Hala, jun gaittuk Llanoneko horretara eta han, ea gu zeintzu ginan, eta, nola dian kontuak!, Llano hark Zumaira abixua pasatuta zian guri zerbait pasa ezker, hara, beaixen txaletera juteko. Kasualidadia! Han eon gitxuan egun batzuetan eta gero Bilbon zapatero lana bilatu ginien.

Gerrara joateko edade toperik ba al zegoen?

Edade haundikuak, eta seme-alaba asko zittunak libratzen ittuan. Baina gerra garaixan, badakik, lana gutxi zeoan eta nahiz eta edade haundixa izan, asko gerrara jun huan. Rantxero baere. Jan ein behar eta jatekorik ez. Majina bat gizon zahar jun huan! Gauza estutzen jun zanean jateko kartilak eman zitien eta handik kontrolatzen zien dana. Antonio Txurrerok eta Benitok lan ona bilatu zien eta komo dios ibili ittuan. Baina haixek ere gero gerrara. Antoniok andregaixa Durango aldeko baserri batekua zian eta han talua eta ogixa nahiko jaten omen zien.

jarraituko du...

Kapaia
Aita Mari

Erribero Kalea 20750 ZEMAILA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

santiago etxea

ISMAEL MANTEROLA

Santiago Etxea Ignazio Zuloagak erosi zituen hareatzetan eraiki zen 1912 eta 1914. urte bitartean, pintorearen familiaren etxebizitza izateko.

Proiektua sinatu zuen arkitektoa Pedro Gimón izan zen, mende hasierako arkitekto euskaldunik ospetsuenetakoa bat. Bilbon eta inguruan, Negurin eta Algortan batez ere, burgesia aberatsaren etxebizitza landu zuen. Hiritik kanpo baina hurre bizi nahi zuten burgesek baldintza ezberdinak bete behar zituzten etxebizitzak eskatu zituzten Gimóni: herrikoiak izatea (hau da, euskal kutsua izatea); arkitekturaren tradizioan oinarrituta egotea, duintasuna adierazteko (baserrian inspiratuta egotea, askotan leinuen eta hidalgia unibertsalarekin erlazionatzen zen); eta modernoa, bizitza modernoak eskaintzen zituen erosotasunak eta espazio konzeptuak erabiltzea.

Santiago Etxeak baldintza horiek guztiak betetzen ditu. Baserrian inspiratuta etxea dirudi, baina garbi dago ez dela nekazaritza zereginetan erabiltzeko eraikina. Dorretxe zaharren duintasuna eta seriotasuna du, baina ez du gotorleku edo gaztelu itxurarik. Normalean, bi isu-



ritako teilatuak dituzte etxe hauek (baserri tipikoak bezala) eta mendialdeko (Alpeetako) herri eraikuntzen elementuak bereganatzen dituzte: egurrezko habeak eta estruktura imitazioak koloretan pintatuta daude fatxadan; harrizko zatiek, berriz, sendotasuna eta seriotasuna ematen diote.

Santiago Etxean ondo ikusten da material tradizionalen erabilpena, baita horiek berritzeko gogoia ere. Zeramikaren erabilpena fatxadan eta xehetasunetan oso inportantea da, ez bakarrik Zuloaga familiakoek lan horretan zihardutelako

(Daniel, Inazioaren osaba), baizik eta garai hartan artisauro lan tradizionala berritzeko eta modernizatzeko izugarriko grina egon zelako. Eskulan xeheak herri esentziak gordetzeko ahalmena izan zutelako pentsatzen zen eta esentzia horiek modernitatearekin lotzea zen artista askoren helburua. Zuloaga pintorearen lana askotan helburu horren atzetik ibili zela esan ohi da.

Beraz, Santiago etxea modernoa, tradizionala eta euskalduna izan nahi zuen pintorearen bizitokia dela ondo adierazten duen arkitektura lana da.

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA



BASUSTA
ERRETEGIA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

parrokiko kaperak ezagutzen

Gure herriak dituen altxor artistiko ezezagunenetakoa izango dira San Pedro parroki elizako alboko kaperak. Kaperak hauek sortu zirela 500 urte betetzen direla eta, Udaleko turismo sailak artelan hauek ezagutarazteko bisita gidatuak antolatu ditu.

1504. urtean ireki ziren ezkerreko eta eskuineko kaperak. San Pedro parroki elizan egindako obrarik garrantzitsuenetakoa ziren eta herriko bi familia ospetsu-ri esker egin ahal izan ziren.

Aldareari begira ezkerrean, San Bernabe kaperak dago, Elorriaga familiak finantzaturakoa. Eskuinaldean, berriz, San Anton kaperak aurkitzen da, Sasiola familiak ordaindutakoa.

Geroago, familia horiek, nork bere kaperan, erretaula bana ezarri zuten. Erretaulak, Errenazimenduko lehena eta Gotikoko bigarrena, oso obra balioetsuak dira eta hala katalogatu ditu Eusko Jaurlaritzak bere ondare historiko artistikoa.

"Askotan etxean dugunaren berri ez dugu izaten eta ez diogu duen garrantzia ematen", diote turismo saileko arduradunek. Bisitariekin, berriz, ez omen da gauza bera gertatzen, sarritan geratzen baitira parrokiari aberastasunarekin liluratu. Adituek diotenez, arte erlijiosoko



lanen artean Gipuzkoako onenetarikoa da San Pedro parrokiakoa.

Altxor hauek ezagutzeko hainbat aukera izango ditugu zumaiarrok maiatzetik urrira bitartean. Maiatzean bi bisita gidatu izango dira, maiatzaren 7an eta 28an. Bisitaldiak ordubetekoak eta doan izango dira. Bereziki azpimarratu beharra dago bisita hauek bereziki daudela pentsatuta zumaiarrontzat.

Alboko bi kaperak bisitatzeaz gain, Juan de Antxieta XVI. mende erdialdera egindako parrokiko erretaula nagusia ere ikusi ahal izango da. Bisitaldia, ordea, ez da honekin amaituko, parrokiko kanpan-

dorrera igotzeko aukera ezin hobea izango baita. Herriko ikuspegi paregabeak aurkituko dituzte bertatik.

Hilabetea

Maiatza
Ekaina
Uztaila
Abuztua
Iraila
Urria

Eguna

7 eta 28, larunbatak
4 eta 18, larunbatak
6 eta 20, asteazkenak
3 eta 17, asteazkenak
24, larunbata
1, larunbata.

Ordua: 16:30ean. Ordubeteko bisita.
Elkargunea: San Pedro parrokia.
12 urtetik beherakoek heldu batek lagunduta joan beharko dute

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970



amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite

ileapaindegia

TXALAPARTA

O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

TOKIKO AGENDA 21



PARTE HARTZEA BULTZATUZ

Zumaiako herriak Tokiko Agenda 21eko egitasmoa aurrera eraratzen jarraitzen du. Herriarren bizi kalitatea

bilatzen duen proiektu hau jendearen parte hartzearekin eraikitzen da eta bide hori dagoeneko hasita dago.

Tokiko Agenda 21ek fase desberdinak ditu. Hasierako urratsa herriaren diagnostiko orokorra egitea da. Azterketa horretan herriaren ahultasunak eta sendotasunak aurkituko ditugu hainbat arlotan (planeanendua, baliabide naturalak, ura, energia, zarata, biztanleriaren bilakera, lana, etab). Zumaiako herria lan hori aholkulari batzuen laguntzarekin ari da egiten. Diagnostikoa hobetzeko eta osatzeko asmoz mahai teknikoak bildu ziren martxoan zehar eta bertan Udaleko teknikari, politikari eta herriko gizarte eragile batzuek hartu zuten parte. Bileran horietan aholkularitzak egindako diagnostikoaren zirraborra aztertu eta osatu zen. Halaber, Ekintza Planerako helburu batzuek ere finkatu ziren.

H elburu berarekin apirilaren 12an herriarrek parte hartzeko foroa izan zen. Bertan, diagnostikoa oinarritzat hartuta, Ekintza Planaren lehenengo helburuei eta zenbait ekintzari buruz eztabaidatu zuten herriarrek.

MUGIKORTASUN PLANA

Tokiko Agenda 21eko diagnostikoan **mugikortasunaren** gaia aztertzen da, besteak beste. Zumaiako Udalak gai honi buruzko azterketa sakona egitea erabaki du, honen inguruan behar bereziak daudelako eta etorkizunerako planifikazioa behar delako.

Azken urteetan izan duen hazkundearekin herriak autoen gorakada handia izan du eta horrek hainbat arazo eragin ditu zirkulatzeko, aparkatzeko, oinezkoentzako, bizikletentzako eta orokorrean mugitzeko. Beraz, mugikortasun plan honetan lehenengo diagnostikoa egingo da eta ondoren gaurko eskaerak zehaztu eta etorkizunerako ingurumena errespetatzen duen mugikortasuna planifikatuko da.

Plangintza honen lehenengo urratsa herriarren ekarpenak eta irizpide desberdinak jasotzea izan da eta horretarako apirilaren 6an mugikortasunari buruzko hausnarketa saioa egin zen Forondako Kultur Etxean. Bileran horretan iritzi asko eta desberdinak jaso ziren eta horiek aipatutako diagnostikoan txertatuko dira.

INFORMAZIO GEHIAGO:

Tel.: 943 89 00 45

www.urolakosta.org

agenda 21@urolakosta.org



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Amaia Plaza
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Ricardo J. Azcue Yeregui
Abokatu • Asegurak
Finka Administrazioa

leoin aguirre 4, behe
20.750 zumai (gipuzkoa)
E-mail: rajazcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax. 943 862746



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuarako departamentua

• denontzat irekia

ZINE FORUM

apirilak 28, osteguna, gaueko 10:15ean

2046

Zuzendaria: Wong Kar-Wai **Aktoreak:** Tony Leung Chiu-wai, Gong Li, Faye Wong, Takuya Kimura, Zhang Ziyi

Wong Kar-wai seguruenik Asiako zuzendari onenetakoa izango da; beraz, zuzendari handi baten aurrean gaude. Kar-wai-ren zinema denbora harrapatu nahiaren eta aldi berean memoriari ihes egitearen arteko borrokari lotuta dago. Bere pertsonaiek unean duten zauria jasaten dute, iragana berreskuratu nahirik dabilozan bitartean etorkizunari begiratzeko.



Bere aurreko filmean (Deseando amar) protagonistek gauzatu ezinezko maitasuna sufrituko/gozatuko dute. 2046 honetan, badirudi gizonezko protagonista Deseando amar-etik datorrela eta lehen jasan zuena ez duela berriro sufritu nahi. Horregatik, konpromisorik gabeko maitasunetan murgilduko da, emakumezkoengan nolako oinazea sor lezakeen axola gabe.

Baina filma ez da hori bakarrik. Alain Resnais-en *Iaz Marienbad*-en filmean bezala, protagonista memoriaren munduan murgilduta ibiliko da, iraganeko 2046 hoteleko gelatik, orainaldian idazten ari den 2046 izeneko zientzi fikziozko nobela arte. Irudimena fikziozko etorkizunari begira jarri nahi duen arren, behin eta berriro (Marienbad-en bezala) iraganak bere amaraunezko sareetan harrapatuko du. Film ederra, dotorea eta misteriozkoa.

maiatzak 12, osteguna, gaueko 10:15ean

Luna de Avellaneda

Zuzendaria: Juan José Campanella **Aktoreak:** Ricardo Darín, Mercedes Morán, Eduardo Blanco, Valeria Bertuccelli

Luna de Avellaneda filmarekin, Juan José Campanellak trilogia argentinarra bukatu zuen: lehena *El mismo amor, la misma lluvia* izan zen; ondoren, *El hijo de la novia* etorri zen, sari asko jaso zituen; eta honekin, lanik biribilenarekin, itxi zuen hirukotea.



Orain ere, film honen emozio engranajeak martxan jartzeko, Campanellak lehendik ezagunak zituen lankideak aurkitu ditu: Fernando Castets gidoilaria eta Ricardo Darín eta Eduardo Blanco aktoreak. Pelikula honek klase ertainaz hitz egingo digu, klase horrek zenbateko premia daukan munduan bere lekua aldarrikatzeko, are gehiago krisi ekonomikoak gainbehera eramán ondoren. Bakoitzak bere etxean eta bakoitzak bere bizitzan daukan dramak markaturik, Club Social Luna de Avellanedako azken bazkideak indarrak bildu beharko dituzte beraien lokala -hazten eta bizitzen irakatsi zieten lekua- espekulazio inbiliarioak irents ez dezan. Auzoko lokal maitagarri honetan komedia eta drama bateratzen dira, batik bat zenbait eszenatan; adibidez, bereziki gogoangarria da Darinek ustekabeen neska lagunaren desleialtasuna jakiten duena.

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAIA • Tel. 943 861 191

OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

EGOKI

Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

BEDUA
ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA

-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMAILEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69



BIDAIDE

ZUMAIA 03:00

Kalean ez da inor, ohiko hain sekreta ez den Seat Ibiza salbu.

Hotza barruraino sartzen da eta hemen nago, geldi, zut, atezu. Lagunaren zain. Kabroi hau garaiz iristen den egunean txapliguak bota beharko ditut. Bitartean, hor jarraitzen dute kotxekoek begirada niregana zuzenduta, inongo disimulu gabe gainera, noski, zertarako disimulatu beraiek legea direnean. Hortaz, hobe dut nik beste alde batera begiratzea, baina nora! Mozkorrik ere ez dabil eta kalean egiten duen hotzarekin.

Eskerrak halako batean laguna azaldu eta Ibizakoen begiradapetik ihes egitea lortzen dudana. Kotxean sartu, elkarri egun onak eman eta abiatu gara Laboaren erritmo berean, bare-bare, goxo-goxo.

GASTEIZ 04:15

Oraindik ez gara Euskal Herritik irten eta hau da zorabioa, jira eta bira, bihurtune bat, eta beste bat, eta beste bat... Azkenean poztu egingo naiz Espainiako lautadara iristean; han, behintzat, dena zuzen, zirt-zart, zorabiatzeko aukera gabe.

Lagunak, behintzat, musika erreperidera egokitu du eta hemen goaz Delirium-en "Boga-Boga" abestia entzunaz. Aspaldikoa du lagunak ohitura hau, egoera bakoitza abesti batekin lotzearena, bizitzari BSO jartzeko intentzioz. Nik, hala ere, nahiago dut egoera bakoitza liburu baten izenburuarekin lotzea, eta orain burura datorkidana Atxagaren "Gizona bere bakardadean" da, hemen baikoaz biok elkarri hitzik esan gabe. Bakoitza norbere arra baretu nahirik, kilometroen distantzia abiadurarekin murriztuz, baina denbora-aren distantzia nola murriztu asmatu ezinik.

BURGOS 05:30

Ostia puta! Kontrola! Pikolo hauek ez dute jada ezer errespetatzen. Nola jarri daiteke holako orduetan kontrola, kotxean egiten duen beroarekin orain kanpora irten behar, mekauden... Eskerrak hauek trafikokoak diren eta jubilatze-ko gutxi falta zaien. Holakoek ez dute arazorik nahi izaten eta bost minuturen gora-beheran identifikatu, egun onak eman eta aurrera jarraitzen uzten digute. Errepideari amorruez ekinez, berriz gara abian, Rammstein-en musikaren abiaduran, mala ostia hau arindu baino mala ostiaz gozaten. Aurrera bolie...

BOCEGUILLAS 06:15

Atsedean hartzeko unea ere iritsi zaigu, eta euskaldunen batekin egon nahi baldin badugu, ezinbesteko geltokia dugu herri txiki honetako ostatua. Hala ere, gaurkoan zorte handirik ez dugu izan, gu baikara lehenengoak.

Kafesne kaxkar bat hartu dugu bezperako kruasan batekin, eta atarian hankak luzatzeari ekin diogu.

Egunguentiarekin batera ingururi so gaude, herri txiki honek eskaintzen duen postala ez baita nolana hiko! Herria aldapa batean dago kokatua eta aldaparen hasieran dagoen lehenengo eraikina, ukiulu batean eraiki duten putetxe txiki bat da. Aldamenean, putetxe handiago bat dago, guardia zibilen kuartela hain zuzen, eta hurrengo eraikina gosaltzen egon garen ostatua, alboan beste ostatu bat eta aldaparen gainaldean gasolinera. Eta kitto. Bukatu da herria eta bukatu da atsedendia.

Kotxean sartu, eta sabel beteak ematen duen poztasunarekin abian gara berrikerian umore alaiz, Tapiaren "Agur Intxorta maitea"-ren doinuak lagungarri ditugula bidaiaren azken txanpari ekiteko.

ALCALA 07:30

Azkenean iritsi gara espetxe atarira, nola ez, kotxeko bozgorailuetatik R.I.P.en "Terrorismo policial" entzunaz.

Hemen ere lehenak izatea suertatu zaigu, oraindik ez dira iritsi senideen furgonetak ez eta bestelako kotxerik. Sarrerako garitaren aldamenean dagoen "parking"-ean kotxea utzi, eta nagiak ateratzeari ekiten diogu pikoloen begirada axolagabea. Ingurura begiratu eta xanpain botila hutsak, zerbeza latak eta ezin deskriba daitezkeen beste hamaika gauza ikusteaz gain, hor dugu parez pare porlanezko munstro erraldoia.

Ohiko bihurtu den pixa parrasta bota eta barrurantz goaz. Garitakoei DNIak erakutsi, hemen oraindik ez baitute

EHNarik onartzen, eta bagoaz 500 metro luze den korridore baten barna. Korridorearen ezker aldean gizonen espetxea ikus daiteke eta eskuinaldean, berriz, emakumeena, txikiagoa. Bi espetxeen tartean eraikin txiki bat dago, La Palmera deritzana, eta harantz zuzentzen gara.

Palmera deritzon eraikin honek Afrikako aireportu baten itxaron gela dirudi, dena hautsa eta zikinkeriaz estalia, eta erdian oraindik zentzurik aurkitzen ez diogun palmera bat dago. Eseri ahala betiko galderak etorri zaizkigu burura. Zenbat denbora da azken aldiz ikusi genuela? Zer egin edo zer gertatu zaigu denbora tarte horretan? Zer gertatu da herrian? Eta egoera politikoa? Zer kontatu behar diogu lagunari? Eta galderak sistematikoak diren bezalaxe, erantzuna ere automatikoa izaten da, inprobisazioa. 40 minutuk gutxiarako ematen baitute.

Halako batean ireki dute bisitentzako leihatila. Berehala goaz gure karnetak ahoan ditugula, oraindik esnatzeko dagoen kartzeleroaren aurrera.

– Buenos días. Venimos a visitar a Garazi B. – edukazio osoz, badaezpada.

– Los DNIs –kartzeleroak lehor.

Karnetak eman dizkiogu eta duela 20 urte ikastolan genituen antzeko ordenagailu batean, ehunka izenen artean bilatzen hasi da.

– ¿Con quién habéis dicho que tenéis locución?

– Garazi B.

– Umm... Pues la interna no se encuentra en este centro – lasai asko kabroiak.

– ¿Eh? ¿Y dónde cojones está?!

– La interna ha sido trasladada a otro centro. No sabemos nada más. Gracias.

– ...

ASIER ARAKISTAIN



ilarzi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
- PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua
Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



agenda

APIRILA

Osteguna, 21: 17:30ean Ipuin kontaketa haur liburutegian
Ostirala, 22: 22:30ean Alondegia aretoan Antzerkiola Imaginarioaren antzezlan "Kaputen kanta"
Igandea 24: 12:00etan Aita Mari aretoan, haur antzerkia: Taun Taun antzerki taldearen "Galtzerdia"
Osteguna, 28: 22:15ean zineforum saioa "2046"
Larunbata, 30: 19:00etan Parrokian, "Orfeón Durangues" abesbatzak Mezetan abestuko du eta ondoren, 19:45ean, Kontzertua.

MAIATZA

Asteazkena, 4: 18:30ean Maria eta Jose aretoan, Zumaia Txoritxiki eta Orioko Musika Eskolaren arteko elkartruke kontzertua.
Ostirala, 6: 22:00etan Aita Marin, antzerkia KAMPINGAGS: "Ezetz lepoa jarri"
Osteguna 12: 18:00etan kultur etxean, mahaingurua, "Jarduera

fisikoa eta ohitura osasuntsuak nerabezaroan"
22:15ean zineforum saioa "Luna de Avellaneda"

Ostirala 13: 19:30ean Aita Mari aretoan, Behoko Plaza abesbatza eta Oreretako Maialen abesbatzaren kontzertua

Osteguna 19, 17:30ean haur liburutegian, Ipuinkontaketa
22:15ean zine saio berezia, Emakumeen Nazioarteko martxa dela eta "Mooladé"

Igandea 22: 12:00etan Aita Mari aretoan Haur antzerkia HIKA: "Groau"

Osteguna 26: 22:15ean zineforum saioa "Confesiones muy intimas"

ERAKUSKETAK

Apirilaren 7tik 9ra Parrokiko Taldeak antolatuta, Alondegian, Bidezko Merkataritza azoka.

Apirilaren 28tik maiatzaren 8ra Aranzadi zientzia Elkartearen "Aurora 2001" erakusketa. Zabaltze ekitaldi-hitzaldia, 19.00etan.

Maiatzak 11-15: Haur Plastika Tailerreko lanak ikusgai
Maiatzak 26-ekainak 19: "Zumaiaik Zumaira"

IRTEERAK

- ARRIAGARA: Ekainaren 11ean, "Japongo Tanborren ikuskizuna" ikustera. Informazioa eta sarrerak kultur etxean (943-861056)

- TURISMO BULEGOAK antolatuta (943-143396)

- Apirila 30-Maiatza 1 - ABENTURAKO KIROL ASTEBURUA. NOGUERA

-Apirila 16, maiatza 1 eta 21 ZUMAIA KULTURALA bisita gidatua.

-Apirila 10 eta 24, maiatza 2 eta 22 ALGORRI-ITZURUN bisita gidatua.

-Apirila 3 eta 17, maiatza 15 eta 29 TREKKIN DEBA-ZUMAIA bisita gidatua

-BISITA BEREZIAK ZUMAIARRENTZAT - SAN PEDRO



Argazki lehiaketa 2005

Udaleko kultura sailak Zumaia XVII. Argazki Lehiaketa jarri du martxan. Euskal Herriko edozein zaletuk har dezakete parte lehiaketan eta ekainaren 21a arte dute lanak aurkezteko epea. Oinarriak Foronda kultur etxean dituzue eskuragai.

PARROKIA. Egunak dira maiatzak 7 eta 28.

Udalaren Euskara zerbitzuan (943-865025)

- ARGAZKI LEHIAKETA: txuri-beltzean. Gaia: "Musika". Lanak aurkezteko epea, ekainaren 21ean. Informazioa kultur etxean (943-861056)

DEIALDIAK

- IKASTAROA: lagun arteko hizkera ikastaroa, maiatzean gaztetxolan. Informazioa

MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA
Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569

ARGIA
ARROPADENDA
Itzurun, 1 Tel. 943 143224



METRO taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620

AUTO-ESKOLA
ZUMAI A

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21

taberna
JUSTA
eguneroko bazkariak
Erribera kalea, 20

LEIZE
taberna
Juan Belmonte, 6

IZETA
Urumea, 6 Tel. 943 862083



Casa BASUSTA



CASA
BASUSTA

LORATEGIA

Ezkontzak, Bqtaioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zuznezko saskiak



Etxez etxeko zerbitzua

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina
• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak